AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5171

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2010eko uztailaren 19ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuaren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena, eta zuzendari beraren 2010eko uztailaren 30eko Ebazpena, aipatutako aukeratze-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman zituena, aldatzen dituena, Carlos García Sánchez jaunak jarritako kasazio-errekurtsoan Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 2013ko uztailaren 8ko epaia betez.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 2013ko uztailaren 8ko epaiaren bidez, partzialki aintzat hartu du Carlos García Sánchez jaunak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko urriaren 27ko Aginduaren kontra jarri duen auzi errekurtsoa (agindu honen bidez, 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuan hautatutako izangaiak Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko praktiketako funtzionarioak izendatu ziren), baita sailburu beraren 2011ko otsailaren 8ko Aginduaren aurka jarri duen auzi errekurtsoa ere (agindu honen bidez, 2010eko uztailaren 30eko Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsoa ezetsi zen, hau da, aipatutako aukeratze-prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman zituenaren kontra). Epaiak errekurtso-egileak Industriako Ingeniaritza Teknikoko tituluko, Elektronika espezialitatea, espediente akademikoa meritu bezala baloratua izateko eskubidea duela ziurtatzen du. Halaber, errekurtso-egileari ondorengo eskubideak ziurtatzen zaizkio: balorazio berria dela eta, dagozkion gainontzeko eskubideak; hauek seigarren arrazoibide juridikoan aipatzen dira.

Aipatutako seigarren arrazoibidean adierazitakoaren arabera, baldin eta errekurtso-egileari lehiaketa-aldian dagokion azken puntuazioa, oposizio-aldiko notarekin behar den bezala ponderatu eta gero, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko, Sistema elektroteknikoak eta automatikoak espezialitatea, hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendan agertzen den azken izangaiaren kalifikazioa baino altuagoa bada (2010eko uztailaren 30eko ebazpenaren bidez argitara eman zen), epaiak errekurtso-egileari zerrenda horretan sartzeko eskubidea duela ziurtatzen du ere bai, jardueren baliogabetasunarekin, bakar-bakarrik haren baztertzeari dagokionez, bai aipatutako 2010eko uztailaren 30eko Ebazpenekoa eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko otsailaren 8ko Aginduarena (azken honek gorako helegitean berretsi zuen), baita ere 2010eko urriaren 27ko Agindukoa, aipatutako kidego eta espezialitatean praktiketako funtzionarioak izendatu zituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko irailaren 16ko Aginduaren bidez aipatutako epaia, haren terminoetan, bete behar dela erabakitzen da.

Industriako Ingeniaritza Teknikoko tituluaren espediente akademikoa baloratu ondoren, Carlos García Sánchez jaunari 1,250 puntu dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuko lehiaketa-aldiko II.1 atalean; eta 8,7370 guztizko puntuak dagozkio aipatutako

aldian. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 5,7586 puntukoa, eta dagokion ponderazioak egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Carlos García Sánchez jaunaren guztizko puntuazioa 6,9500koa da.

Horren ondorioz, irakasleen kidegoetara sartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesua gainditu zituzten izangaien zerrendan sartu behar zaio, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko Sistema elektroteknikoak eta automatikoak espezialitatean, txanda librean.

Horregatik, aipatutako epaian xedatutakoa betez, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2010eko uztailaren 19ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuaren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena. Horiek horrela, Carlos García Sánchez jaunak 1,250 puntu izango ditu lehiaketa-aldiko II.1 atalean, Industriako Ingeniaritza Teknikoko tituluko espediente akademikoa baloratu izanaren ondorioz, eta 8,7370 guztizko puntuazioa aipatutako aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2010eko uztailaren 30eko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Aldaketa horren ondorioz, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan hautatutako izangai gisa sartzen zaio Carlos García Sánchez jaunari, Sistema elektroteknikoak eta automatikoak, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 6,9500 punturekin.

Hirugarrena.– Hogei egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hautatutako izangaiak aurkez ditzan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko abenduaren 10eko aginduaren 11.1. oinarrian zerrendatutako agiriak, edozein Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzatan.

Adierazitako dokumentazioa ezarritako epean, ezinbesteak bultzaturik izan ezik, aurkezten ez badu edo dokumentazio hori aztertzetik aipatutako aginduaren bigarren oinarrian adierazitako baldintzetako bat ez duela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu, hasierako eskaeran faltsutasuna egoteagatik eror litekeen erantzukizunaren kalterik gabe.

Laugarrena.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak praktiketako funtzionario izendatuko du Carlos García Sánchez jauna.

Lehiatzaile horrek esleitutako destinoan egin beharko ditu praktikak eta, agertzen ez bada, aukeratze-prozedurari uko egiten diola interpretatuko da.

Behar bezala justifikatutako arrazoiak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak kontuan hartu dituenak, direla-eta praktika-fasera ikasturte bat beranduago sartu behar duen horrek idatziz eskatu beharko du hogei egun naturaleko epean, Ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskaerarekin batera justifikagiriak ere aurkeztu beharko ditu.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 103.1. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 11.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.